

31E//2020 FORU AGINDUA, apirilaren 20koa, Herritarrekiko Harremanetako Departamentuko kontseilariak emana, Euskarabidearen eta Euskaltzaindiaren artean 2020rako lankidetzahitzarmen bat egiteko gastua baimentzen duena.

ERREFERENTZIA: **Espedientearen kodea: 0011-S014-2020-000000**

UNITATE KUDEATZAILEA: Herritarrekiko Harremanetako Departamentua
Hizkuntza Baliabideak
Tfnoa.: 848 426054 Faxe:
Helbidea: Yanguas y Miranda 27, 31008 Iruña
Posta elektronikoa: euskarabidea@navarra.es

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 17.2.a) artikulua xedatzen du Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeak esleitzen ahal dituela dirulaguntza izendunak, baldin eta lortu nahi den helburua eta diru kantitatea berariazko onuradunari zehazten bazaizkio.

Nafarroako Parlamentuak, 2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko martxoaren 4ko 5/2020 Foru Legearen bidez, "Euskaltzaindiarekiko hitzarmena / Convenio con Euskaltzaindia – Real Academia de la Lengua Vasca" izeneko B30001 B3100 4816 334100 partida izenduna onetsi zuen, 169.000 eurokoa.

Horiek horrela, egokitzen jotzen da Nafarroako Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren artean hitzarmen bat sina dezaten, arautzeko sinatzaileek hartutako konpromisoen markoa, Euskaltzaindiak Nafarroako Foru Komunitatearekin zerikusia duen jarduera ahalbidetzera bideratua.

Euskarabideko zuzendari-kudeatzaileak aurkeztutako txostena ikusirik, eta Herritarrekiko Harremanetako Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 30eko 271/2019 Foru Dekretuan ezarritakoaren bidez esleitu dizkidaten ahalmenak erabiliz,

AGINDU DUT:

1. 169.000,00 euroko diru gastua baimentzea, 2020an, Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutuaren eta Euskaltzaindiaren artean lankidetzahitzarmen bat egiteko.

Gastua hau egingen da 2020ko gastuen aurrekontuko B30001 B3100 4816334100 "Euskaltzaindiarekiko hitzarmena / Convenio con Euskaltzaindia – Real Academia de la Lengua Vasca" partidaren kargura.

2. Foru agindu hau igortzea, behar diren ondorioak izan ditzan, Herritarrekiko Harremanetako Departamentuan Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak duen kontu-hartzailetzara, aipatutako Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusira eta Kudeaketa Administratibo eta Ekonomikoaren Atalera, Hizkuntza Baliabideen Zerbitzura, Programen Bulegora eta Dirulaguntzen Datu-base Nazionalera.
3. Ebazpen honek ez du administrazio bidea amaitzen, eta horren aurka gora jotzeko errekurtoa jar daiteke, Nafarroako Gobernuari zuzendua, jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.



CSV: **2CA91D234F71606F**

Puede verificar su autenticidad introduciendo el CSV en <https://administracionelectronica.navarra.es/validarCSV/default.aspx>

Emitido por Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernua emana (DIR3: A15007522)
Fecha de emisión / Noiz emana: 2020-04-20 12:07:30

Iruñean, 2020ko apirilaren 20an

HERRITARREKIKO HARREMANETAKO KONTSEILARIA.
Ana Olo Hualde



CSV: **2CA91D234F71606F**

Puede verificar su autenticidad introduciendo el CSV en / *Art. 22* Benetakoa dela egiaztatu dezakezu CSVa hemen sartuta:
<https://administracionelectronica.navarra.es/validarCSV/default.aspx>

Emitido por Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernuak emana (DIR3: A15007522)

Fecha de emisión / Noiz emana: 2020-04-20 12:07:30